




2. Merkatuaren segmentazioa

Gure zerbitzuaren kontsumitzaile nagusiak izango diren bezeroak hurrengoak dira:

- Lehenik, erosteko ahalmen gutxi duten pertsonak; izan erre, gure produktuak birziklatuak direnez, haien prezioa argi eta garbi jaitsiko da, eta eskuragarriagoa izango da pertsona horientzat.
- Bigarrenak, Ingurumenarekin eta ekosistemarekin kezkatuta dauden bezeroengana iristeko prest gaude. Janari gramo bat ere alferrik galdu nahi ez duten bezero horiek, batez ere planetari kalte egiten dion janaria.
- Azkenik, sukaldatzeko denbora gutxi duten jendeak, haiek eramateko eta berotzeko prestatutako janari-atal bat daukagu, eta, horrela, denborarik galdu gabe eta merke jan dezakete. Prestatutako janaria jantokiek emango digute eta mahai pare bat egongo dira jendeak dendan jateko aukera izan dezan, baina gure negozio nagusia janaria saltzea da. Talde honetan, lan asko egiten duten pertsonak edo ikasleak sartzen dira.

Gure negozioa pertsona askori irekita dago, nahiz eta bezero zehatz batzuk izan, pertsona mota guztiek kontsumitu ditzakete gure zerbitzuak, jatea giza oinarritzko premia baita. Gure negozioa Bilboko eremu geografikoan zentratuko da.



Fuente: Fuente: EPDS 1996-2016 y EDSS-ENS 2014/2018. Departamento de Empleo y Asunto Sociales (Gobierno Vasco)

Grafikoan ikusten den bezala, Bilboko pobrezia-aren tasa urtero igotzen da, horrek esan nahi du gero eta ondasunak lortzeko zailtasuna duten pertsona gehiago daudela. Horregatik, gure negozioa erosteko ahalmen gutxi dutenentzat bideratuta dago, errazago lortzeko eguneroko janaria.